

ZUMIAKO KIROL PORTUA, S.A.

**AUDITORIA TXOSTENA, URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA /
*INFORME DE AUDITORÍA, CUENTAS ANUALES E INFORME DE GESTIÓN***



ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.

***2020KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTUAK, KUDEAKETA
TXOSTENA ETA IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES AL 31 DE DICIEMBRE DE 2020 JUNTO
CON EL IFNORME DE GESTIÓN Y EL INFORME DE AUDITORÍA***



ZUMAIAKO KIROL PORTUA, S.A.

***2020KO ABENDUAREN 31KO URTEKO
KONTUEN IKUSKAPEN TXOSTENA***

***INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES
AL 31 DE DICIEMBRE DE 2020***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK
EGINDAKO URTEKO KONTUEN
IKUSKARITZA-TXOSTENA

Zumaiako Kirol Portua S.A. sozietatearen akziodun
bakarrari, Kontseilari Delegatuak eskatuta:

Iritzia

ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A.-ren (Sozietatea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2020ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2020ko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizunak, arau horien arabera, *Urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS
ANUALES EMITIDO POR UN AUDITOR
INDEPENDIENTE

A los Accionistas de Zumaiako Kirol Portua S.A., por
encargo de la Consejera Delegada:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A. (la Sociedad), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2020, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria, correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad a 31 de diciembre de 2020, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a



(independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Enfasi-paragrafoa

Erantsitako memoriako 14.4 oharra azpimarratzen dugu. Bertan adierazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legeko lehen xedapen gehigarrian jasotzen zen bezala, 2020ko maiatzaren 12an 58/2020 eta 59/2020 Dekretuak onartu zirela. Dekretu horien bidez, Euskadiko Kirol Portuak zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren jardueraren hasiera zehazten da, eta bere eginkizunak garatzeko behar dituen baliabideak atxikitzen zaizkio. Une horretatik aurrera, Zumaia Kirol Portua, S.A.ren bazkide nagusi gisa, Eusko Jaurlaritzak sozietate publikoa azkentzea eta likidatzea sustatu du, nahiz eta txosten honen datan formalizatu ez izan. Zumaia Kirol Portua, S.A. sozietatea desagertu ondoren, Euskadiko Kirol Portuak erakundeak gauzatzen dituen eginkizunetan diharduten langileak erakunde horretan sartuko dira, erakundea subrogatuko da kontratuetan, hitzarmenetan eta sozietateak azkentzeko unean dituen gainerako negozio juridikoetan jatorria duten harreman juridiko subjektibo, eskubide eta betebeharrak guztietan eta zerbitzuari lotutako ondasun eta eskubideak erakundearen eskura jarriko dira. Egoera honek ez du gure iritzia aldatzen.

nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Párrafo de énfasis

Llamamos la atención sobre la nota 14.4 de la memoria adjunta en la que se indica que tal y como se establecía en la disposición adicional primera de la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, con fecha 12 de mayo de 2020 fueron aprobados los Decretos 58/2020 y 59/2020, por los que se determina el inicio de actividad de la Entidad Pública de Derecho Privado Euskadiko Kirol Portuak y se adscriben a ésta los medios necesarios para el desarrollo de sus funciones. A partir de ese momento, y en calidad de socio mayoritario de Zumaia Kirol Portua, S.A., el Gobierno Vasco ha promovido la extinción y liquidación de la sociedad pública, sin que a fecha de este informe se haya formalizado. Tras la extinción de la sociedad Zumaia Kirol Portua, S.A. el personal que preste servicios en las funciones llevadas a cabo por el ente Euskadiko Kirol Portuak se integrarán en él, la entidad se subrogará en todas las relaciones jurídicas subjetivas, derechos y obligaciones que tengan su origen en contratos, convenios y demás negocios jurídicos que tenga la Sociedad en el momento de su extinción y se pondrán a disposición del ente los bienes y derechos afectos al servicio. Nuestra opinión no ha sido modificada en relación con esta cuestión.



Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2020 ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; berau egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure ikuskaritza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-ikuskaritzaren araudiaren arabera, hauex da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea, aipatutako urteko kontuen ikuskaritzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz, eta baita kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea da. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Hemos determinado que no existen riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deban comunicar en nuestro informe.

Otra información: Informe de gestión

La otra información comprende exclusivamente el informe de gestión del ejercicio 2020, cuya formulación es responsabilidad de los administradores de la Sociedad y no forma parte integrante de las cuentas anuales.

Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales no cubre el informe de gestión. Nuestra responsabilidad sobre el informe de gestión, de conformidad con lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas, consiste en evaluar e informar sobre la concordancia del informe de gestión con las cuentas anuales, a partir del conocimiento de la entidad obtenido en la realización de la auditoría de las citadas cuentas, así como evaluar e informar de si el contenido y presentación del informe de gestión son conforme a la normativa que resulta de aplicación. Si, basándonos en el trabajo que hemos realizado, concluimos que existen incorrecciones materiales, estamos obligados a informar de ello.

Sobre la base del trabajo realizado, según lo descrito en el párrafo anterior, la información que contiene el



informazioa 2020 ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako

informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2020 y su contenido y presentación son conforme a la normativa que resulta de aplicación.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la



ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materializat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.

actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.
- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.



- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzialdatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Nos comunicamos con los administradores de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.



- 7 -

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko apirilaren 17an

Vitoria-Gasteiz, a 17 de abril de 2021

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea/
Sociedad inscrita en el R.O.A.C. con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador
(ROACean 11.305 zenbakiz inskribatuta/
Inscrito en el R.O.A.C con el nº 11.305)

ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.

**2020ko abenduaren 31n amaitutako
urteko ekitaldiari dagozkion
Urteko Kontuak eta Kudeaketa-txostena**

**Cuentas Anuales e Informe de Gestión
Correspondientes al ejercicio anual terminado el
31 de diciembre de 2020/**

AURKIBIDEA

- Balantzea, 2020ko abenduaren 31n
- 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion galera-irabazien kontua
- 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian ondare garbian egindako aldaketen egoera
- 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eskudiruzko fluxuen egoera
- 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion memoria
- 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion Kudeaketa-txostena

ÍNDICE

- Balance al 31 de diciembre de 2020
- Cuenta de pérdidas y ganancias correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020
- Estado de cambios en el patrimonio neto correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020
- Estado de flujos de efectivo correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020
- Memoria correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020
- Informe de gestión correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020

ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.**Balantzea, 2020ko abenduaren 31n / Balance al 31 de diciembre de 2020**

(Eurotan) / (Expresado en euros)

AKTIBOA / ACTIVO	Oharrak / Notas	2020	2019
AKTIBO EZ-ARRUNTA / ACTIVO NO CORRIENTE		2.685.782	3.069.464
Ibilgetu ukiezina / Inmovilizado intangible	6	2.685.782	3.069.464
Aktibo ukiezina, emakida akordioa / Activo intangible, acuerdo de concesión		2.685.782	3.069.464
AKTIBO ARRUNTA / ACTIVO CORRIENTE		2.222.768	2.120.202
Merkataritza zordunak / Deudores comerciales	8	2.955	1.138
Epe laburrerako finantza-inbertsioa / Inversiones financieras a corto plazo	7.1	1.913.448	1.913.813
Ondare-tresnak / Instrumentos de patrimonio		1.913.448	1.913.813
Eskudirua eta beste aktibo likido ballokide batzuk / Efectivo y otros activos líquidos equivalentes/		306.365	205.251
Diruzaintza / Tesorería		306.365	205.251
AKTIBOA, GUZTIRA / TOTAL ACTIVO		4.908.550	5.189.666

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO	Oharrak / Notas	2020	2019
ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO		4.226.682	4.433.833
BEREKO FUNTSAK / FONDOS PROPIOS	7.2	2.082.163	1.982.003
Kapitala / Capital		60.101	60.101
Kapital eskrituratua / Capital escriturado		60.101	60.101
Erreserbak / Reservas		1.921.902	1.826.884
Lege- eta estatutu-erreserbak / Legal y estatutarias		12.020	12.020
Beste erreserba batzuk / Otras reservas		1.909.882	1.814.864
Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	3	100.160	95.018
DOIKUNTZAK BALIO ALDAKETARENGATIK / AJUSTES POR CAMBIO DE VALOR		(4.107)	(3.742)
JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK / SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS RECIBIDOS	10	2.148.626	2.455.572
PASIBO EZ ARRUNTA / PASIVO NO CORRIENTE		537.157	613.893
Zerga geroratuen pasiboak / Pasivos por impuesto diferido	8	537.157	613.893
PASIBO ARRUNTA / PASIVO CORRIENTE		144.711	141.940
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk / Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar		144.711	141.940
Hornitzaileak / Proveedores		-	7.243
Hartzekodunak / Acreedores		7.950	-
Zerga arrunten pasiboak / Pasivos por impuesto corriente	8	25.040	23.704
Beste zor batzuk, Herri Administrazioekin / Otras deudas con las Administraciones Públicas	8	111.721	110.993
GUZTIRA, ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO		4.908.550	5.189.666

Erantsitako txostenean azaldutako 1-14 oharrak 2020ko abenduaren 31ko balantzeko zati dira. / Las Notas 1 a 14 incluidas en la memoria adjunta forman parte integrante del balance a 31 de diciembre de 2020.

ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion galera-irabazien kontua /
Cuenta de pérdidas y ganancias correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de
diciembre de 2020

(Eurotan adierazia) / (Expresada en euros)

	Oharra / Notas	2020	2019
ERAGIKETA JARRAITUAK / OPERACIONES CONTINUADAS			
Beste ustiapen-sarrera batzuk / Otros ingresos de explotación	9	188.398	186.903
Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk / Ingresos accesorios y otros de gestión corriente		188.398	186.903
Beste ustiapen-gastu batzuk / Otros gastos de explotación	9	(57.009)	(62.077)
Kanpoko zerbitzuak / Servicios exteriores		(57.009)	(62.077)
Ibilgetuaren amortizazioa / Amortización del inmovilizado	6	(383.682)	(383.682)
Finantzazkoa ez den ibilgetuko diru-laguntzak eta bestelakoak egozteak / Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras	10	383.682	383.682
Beste emaitza batzuk / Otros resultados		(138)	-
USTIAKETAREN EMAITZA / RESULTADO DE EXPLOTACIÓN		131.251	124.826
Finantza-gastuak / Gastos financieros		(6.051)	(6.053)
FINANTZA-EMAITZA / RESULTADO FINANCIERO		(6.051)	(6.053)
EMAITZA ZERGA AURRETIK / RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		125.200	118.773
Irabazien gaineko zerga / Impuesto sobre beneficios	8	(25.040)	(23.755)
EKITALDIKO EMAITZA / RESULTADO DEL EJERCICIO	3	100.160	95.018

Erantsitako memorian sartuta dauden 1-14 oharak 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuaren zati dira. / Las Notas 1 a 14 incluidas en la memoria adjunta forman parte integrante de la cuenta de pérdidas y ganancias correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020.

ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian ondare garbian egindako aldaketen egoera / Estado de cambios en el patrimonio neto correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020

(Eurotan) / (Expresado en euros)

A) 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aitortutako sarreraren eta gastuen egoera / Estado de ingresos y gastos reconocidos correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020

	Oharrak / Notas	2020	2019
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA / RESULTADO DE LA CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS	3	100.160	95.018
Finantza tresnen balorazioarengatik / Por valoración de instrumentos financieros		(365)	15.819
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos	10	-	69.063
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS Y GASTOS IMPUTADOS DIRECTAMENTE EN EL PATRIMONIO NETO		(365)	84.882
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos	10	(383.682)	(383.682)
Zerga ondorioa / Efecto impositivo	10	76.736	76.736
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA / TOTAL TRANSFERENCIAS A LA CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS		(306.946)	(306.946)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS		(207.151)	(127.046)

B) 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian ondare garbian egindako aldaketen egoera, guztira / Estado total de cambios en el patrimonio neto correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020

	Kapital eskrituratu / Capital escriturado (Oharra / nota 7)	Erreserbak / Reservas (Oharra/ nota 7)	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio (Oharra/ nota 3)	Doikuntzak balio aldaketarengatik / Ajustes por cambio de valor (Oharra/ nota 7)	Jasotako diru- laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos (Oharra/ nota 10)	GUZTIRA / TOTAL
2018. URTE AMAIERAKO SALDOA / SALDO, FINAL DEL AÑO 2018	60.101	1.739.340	87.544	(19.561)	2.693.455	4.560.879
2019. URTE HASIERAKO SALDOA / SALDO, INICIAL DEL AÑO 2019	60.101	1.739.340	87.544	(19.561)	2.693.455	4.560.879
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira / Total ingresos y gastos reconocidos	-	-	95.018	-	(306.946)	(211.928)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak / Otras variaciones del patrimonio neto	-	87.544	(87.544)	15.819	69.063	84.882
2019. URTE AMAIERAKO SALDOA / SALDO, FINAL DEL AÑO 2019	60.101	1.826.884	95.018	(3.742)	2.455.572	4.433.833
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira / Total ingresos y gastos reconocidos	-	-	100.160	-	(306.946)	(206.786)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak / Otras variaciones del patrimonio neto	-	95.018	(95.018)	(365)	-	(365)
2020. URTE HASIERAKO SALDOA / SALDO, FINAL DEL AÑO 2020	60.101	1.921.902	100.160	(4.107)	2.148.626	4.226.682

Erantsitako txostenean azaldutako 1-14 oharak 2020ko abenduaren 31ko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-erriko zati dira. / Las Notas 1 a 14 incluidas en la memoria adjunta forman parte integrante del estado de cambios en el patrimonio neto correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020.

ZUMAIKO KIROL PORTUA, S.A.

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eskudiruzko fluxuen /
Estado de flujos de efectivo correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de
diciembre de 2020

(Eurotan) / (Expresado en euros)

	2020	2019
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK / FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN	101.114	150.220
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik / Resultado del ejercicio antes de impuestos	125.200	118.773
Emaitzaren doiketak / Ajustes del resultado	6.051	6.053
Ibilgetuaren amortizazioa / Amortización del inmovilizado	383.682	383.682
Diru-laguntzen egozketa / Imputación de subvenciones	(383.682)	(383.682)
Finantza-gastuak / Gastos financieros	6.051	6.053
Aldaketak kapital arruntean / Cambios en el capital corriente	954	55.202
Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk /		
Deudores y otras cuentas por cobrar	(1.817)	54.730
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk /		
Acreedores y otras cuentas a pagar	2.771	472
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk / Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación	(31.091)	(29.808)
Interesen ordainketak / Pagos de intereses	(6.051)	(6.053)
Irabazien gaineko zergaren ordainketak /		
Pagos por impuesto sobre beneficios	(25.040)	(23.755)
ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN IGOERA (MURRIZKETA) GARBIA / AUMENTO (DISMINUCIÓN) NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES	101.114	150.220
Eskudirua edo balioekideak ekitaldi hasieran / Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio	205.251	55.031
Eskudirua edo balioekideak ekitaldi amaieran / Efectivo o equivalentes al final del ejercicio	306.365	205.251

Erantsitako txostenean azaldutako 1-14 oharak 2020ko abenduaren 31n amaitutako eskudiru fluxuaren egoera-orriaren zati dira. / Las Notas 1 a 14 incluidas en la memoria adjunta forman parte integrante del estado de flujos de efectivo correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020.

1. ENPRESAREN JARDUERA

Zumaiako Kirol Portua, SA sozietatearen helburu soziala kirol portuak planifikatzea, sustatzea, garatzea eta ustiatzea da, bere kabuz, emakidadun gisa edo hirugarrenei dagozkien eskubideen lagapenaren bitartez.

1994ko azaroaren 3an eratu zen. 1995 eta 1996. urteetan, Zumaiako kirol portua planifikatzea eta sustatzea izan zen sozietatearen jardura nagusia, kirol portua eraikitze eta ustiatze eta zegokion administrazio-emakida lortzeko beharrezkoak ziren proiektuak eta azterlanak eginez.

Horretarako behar ziren izapideak egin ondoren, 1997ko urriaren 1ean lortu zen Zumaiako kirol portua eraikitze eta ustiatze emakida, 30 urteko eperako; epe hori igaro ondoren, lursailak eta egindako obrak eta instalazioak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku geratuko dira.

Sozietateak Marina Urola, SA enpresari esleitu zizkion portua eraikitze lanak, 1997ko azaroaren 12an formalizatu zen kontratuan. Kontratu horretan bertan, enpresa horri berari eman zitzaion, baita, kirol portua ustiatze eskubidea, emakidaren indarraldia amaitu arte.

Oinarritzko azpiegitura eraikitze lanak, obra-zuzendaritzaren zerbitzu-sariak eta bestelako obra, proiektu eta azterlan osagarriak Zumaiako Kirol Portua, SA sozietateari zegozkion eta 11,5 milioi euroko inbertsioa eskatu zuten. 1997. urtearen amaieran hasi ziren lanak eta 1999ko bigarren seihilekoan amaitu ziren. 1999ko irailean hasi ziren funtzionatzen itsas- eta kirol-instalazioak.

1. ACTIVIDAD DE LA EMPRESA

La sociedad Zumaiako Kirol Portua, S.A. tiene por objeto social la planificación, promoción, desarrollo y explotación de puertos deportivos, por sí, en calidad de concesionario, o mediante la cesión de los derechos que correspondan a terceros.

Se constituyó el 3 de noviembre de 1994. Durante los ejercicios 1995 y 1996 centró su actividad en planificar y promocionar el puerto deportivo de Zumaia, elaborando los proyectos y estudios necesarios para su construcción y explotación y para la obtención de la correspondiente concesión administrativa

Tras realizar los trámites necesarios al efecto, la concesión para la construcción y explotación del puerto deportivo en Zumaia, se obtuvo el 1 de octubre de 1997, por un plazo de 30 años, transcurridos los cuales, los terrenos, obras e instalaciones realizadas revertirán a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Sociedad adjudicó las obras de construcción del puerto a la sociedad Marina Urola, S.A., en contrato formalizado el 12 de noviembre de 1997. En el mismo contrato, se cede también a esta sociedad, el derecho de explotación del puerto deportivo, hasta la finalización del plazo de vigencia de la concesión.

Las obras de construcción de la infraestructura básica, los honorarios por dirección por obra y otras obras, proyectos y estudios complementarios corrían a cargo de Zumaiako Kirol Portua, S.A. y supusieron una inversión de 11,5 millones de euros. Las obras comenzaron a finales de 1997 y concluyeron durante el segundo semestre del año 1999. Las instalaciones náutico-deportivas entraron en funcionamiento en septiembre de 1999.

Behin kirol portuaren oinarritzko eraikuntza-lanak amaitu eta ustiatzen hasi ondoren, Sozietatearen jarduera emakidaren administrazioan eta kontrolean eta Zumaia kirol portua sustatzeko jarduerak aurrera eramatean zentratu zen.

Sozietatearen helbidea Zumaian dago, Foruen Enparantzako 1. zenbakian.

2. URTEKO KONTUEN AURKEZPEN-OINARRIAK

Urteko kontuak, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bitartez aldatutako azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitateko Plan Orokorraren eta merkataritza arloan indarrean dagoen gainerako legeriaren arabera prestatu dira.

Horrez gain, 2020. eta 2019. ekitaldietako urteko kontuak prestatzeko, Kontabilitateko Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakida duten enpresei egokitzeko arauak, abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren bitartez onartu eta 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean daudenak, hartu dira kontuan.

Urteko kontuak Sozietatearen Administrazioaileek prestatu dituzte, Akziodunen Batzar Nagusiaren irizpenerako aurkeztu eta horrek onar ditzan; inolako aldaketarik gabe onartuko direla aurreikusten da.

2019. ekitaldiko urteko kontuak 2020ko ekainaren 11ko Batzar Nagusiak onetsi zituen, Administrazio Kontseiluak haiek aurkeztu ondoren, eta auditoria txostena Betean Auditoria S.L.P. enpresak egin zuen.

Urteko kontuetako zifrak eurotan adierazita daude, kontrakoa adierazten ez bada, behintzat.

2.1 Benetako irudia

Sozietatearen kontabilitateko erregistro laguntzaileetatik abiatuta prestatu dira urteko kontuak, kontabilitatearen gaian indarrean dauden

Una vez finalizada la construcción básica del puerto deportivo e iniciada su explotación, la actividad de la Sociedad se centra en la administración y control de la concesión y en la realización de actividades de promoción del puerto deportivo de Zumaia.

El domicilio social de la Sociedad se encuentra en Zumaia, calle Foruen Enparantza, número 1.

2. BASES DE PRESENTACIÓN DE LAS CUENTAS ANUALES

Las cuentas anuales se han preparado de acuerdo con el Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre, el cual ha sido modificado por el Real Decreto 1159/2010, de 17 de septiembre, así como con el resto de la legislación mercantil vigente.

Adicionalmente, las cuentas anuales del ejercicio 2020 y 2019 se han preparado de acuerdo con las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad a las empresas concesionarias de infraestructuras públicas, aprobadas mediante la Orden EHA/3362/2010, de 23 de diciembre, en vigor desde el 1 de enero de 2011.

Las cuentas anuales han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad para su sometimiento a la aprobación de la Junta General de Accionistas, estimándose que serán aprobadas sin ninguna modificación.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2019 fueron aprobadas por la Junta General el 11 de junio de 2020, una vez formuladas las mismas por el Consejo de Administración y el informe de auditoría realizado por la empresa Betean Auditoria S.L.P.

Las cifras incluidas en las cuentas anuales están expresadas en euros, salvo que se indique lo contrario.

2.1. Imagen fiel

Las cuentas anuales se han preparado a partir de los registros auxiliares de contabilidad de la Sociedad, habiéndose aplicado las disposiciones legales

legezko xedapenak aplikatuz, Sozietatearen ondarea, finantza-egoera eta emaitzen benetako irudia erakusteko helburuarekin. Eskudiruzko fluxuen egoera, Sozietatearen eskudirua eta aktibo likido baliokideak adierazten dituzten moneta-aktiboen jatorriari eta erabilerari buruzko benetako informazioa emateko prestatu da.

2.2 Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Sozietateak, funtzionatzen ari den enpresaren printzipioan oinarrituz prestatu ditu bere finantza egoerak, COVID-19-ren egungo egoera kontuan hartuta, baita ekonomian oro har eta Sozietatearen bereziki izan ditzakeen ondorioak ere, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa garrantzitsurik eragin dezakeen inolako arrisku garrantzitsurik.

20ko abenduaren 31n amaitu zen urteko ekitaldiari dagozkion Sozietatearen urteko kontuetan, aldiaren behin, Administrazioaileek zenbatespenak egin dituzte zenbait aktiboren, pasiboren, sarreraren eta gasturen balioa zehazteko. Zenbatespen horiek honako hauei dagozkie, batez ere:

- aktibo jakin batzuen galerak, narriadura dela eta
- aktibo materialen eta ukiezinen bizitza erabilgarria

Zenbatespen horiek kontu horiek gauzatzeko egunean aztertutako gertakariei buruz zegoen informazio hoberenaren arabera egin ziren arren, litekeena da etorkizunean etor daitezkeen gertakariak horiek aldatzea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan; aldaketa horiek, egin behar izatekotan, era prospektiboan egingo lirateke, zenbatespen aldaketaren ondoreak etorkizuneko galeren eta irabazien kontuetan islatuz.

2.3 Informazioaren alderaketa

Merkataritza alorreko legediarekin bat etorriz, Administrazioaileek, alderatze ondoretarako,

vigentes en materia contable con la finalidad de mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad. El estado de flujos de efectivo se ha preparado con el fin de informar verazmente sobre el origen y la utilización de los activos monetarios representativos de efectivo y otros activos líquidos equivalentes de la Sociedad.

2.2 Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre

La Sociedad ha elaborado sus estados financieros bajo el principio de empresa en funcionamiento, habiendo tenido en consideración la situación actual del COVID-19, así como sus posibles efectos en la economía en general y en la Sociedad en particular, sin que exista ningún tipo de riesgo importante que pueda suponer cambios significativos en el valor de los activos o pasivos en el ejercicio siguiente.

En las cuentas anuales de la Sociedad correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2020 se han utilizado ocasionalmente estimaciones realizadas por los Administradores para valorar alguno de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Básicamente, estas estimaciones se refieren a:

- las pérdidas por deterioro de determinados activos
- la vida útil de los activos materiales e intangibles

A pesar de que estas estimaciones se realizaron en función de la mejor información disponible en la fecha de formulación de estas cuentas anuales sobre los hechos analizados, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en próximos ejercicios; lo que se haría de forma prospectiva reconociendo los efectos del cambio de estimación en las correspondientes cuentas de pérdidas y ganancias futuras.

2.3 Comparación de la información

De acuerdo con la legislación mercantil, los Administradores presentan, a efectos comparativos,

balantzeko partida bakoitzarekin batera, galeren eta irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta esku-diruzko fluxuen egoera ere aurkeztuko dituzte eta, 2020ko ekitaldiari dagozkien zifrez gain, baita aurreko ekitaldikoak ere. Halaber, 2020. ekitaldiari dagokion memoria horretan jasotzen den informazioa, 2019ko ekitaldiko informazioarekin alderatuz aurkezten da.

con cada una de las partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio 2020, las del ejercicio anterior. Asimismo, la información contenida en esta memoria referida al ejercicio 2020 se presenta, a efectos comparativos con la información del ejercicio 2019.

2.4 Kontabilitate-irizpideen aldaketak, akatsak eta kontabilitateko zenbatespenak

2020. ekitaldian ez da kontabilitate irizpideen aldaketa garrantzitsurik gertatu aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuz, eta ez garrantzitsutzat har daitekeen eta egungo ekitaldian edo, aurreikuspenen arabera, etorkizunekoetan eraginik izan dezakeen kontabilitate zenbatespenen aldaketarik.

Horrez gain, 2020ko ekitaldiko urteko kontuek ez dute jasotzen ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

2.4 Cambios en criterios contables, errores y estimaciones contables

Durante el ejercicio 2020 no se han producido cambios significativos de criterios contables respecto a los criterios aplicados en el ejercicio anterior, ni se han producido cambios en estimaciones contables que sean significativos y que afecten al ejercicio actual o que se espere que puedan afectar a los ejercicios futuros.

Adicionalmente, las cuentas anuales del ejercicio 2020 no incluyen ajustes realizados como consecuencia de errores detectados en el ejercicio.

3. EMAITZAK BANATZEA

Administratzaileek aurkeztu eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartuko duela aurreikusten den 2020ko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena ondorengo da:

3. APLICACIÓN DEL RESULTADO

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2020, formulada por los Administradores y que se espera sea aprobada por la Junta General de Accionistas, es la siguiente:

(Euroak) / (Euros)	2020
Banaketa-oinarria / Base de reparto	
Galeren eta irabazien kontuaren saldoa (mozkina)	100.160
Saldo de la cuenta de pérdidas y ganancias (beneficio)	
	100.160
Aplikazioa / Aplicación	
Borondatezko erreserbetara / A Reservas voluntarias	100.160
	100.160

4. ERREGISTRATZEKO BALORATZEKO ARAUAK ETA

Honakoak dira, urteko kontu hauek prestatzerakoan, Sozietateak erregistrorako eta baloraziorako erabili dituen irizpide nagusiak:

4. NORMAS DE REGISTRO Y VALORACIÓN

Los principales criterios de registro y valoración utilizados por la Sociedad en la elaboración de estas cuentas anuales son los siguientes:

4.1 Ibilgetu ukiezina

Hasiera batean, bere kostuagatik baloratzen da ibilgetu ukiezina; kostua, erosteko prezioa edo ekoizteko kostua izan daiteke.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu ukiezina baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, narriaduragatiko erregistratutako zuzenketa metatutako zenbatekoa.

Bizitza erabilgarri zehatza duten aktibo ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, ondasunen zenbatetsitako bizitza erabilgarriaren eta hondarbalioaren arabera. Aplikaturako amortizazio metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitzaren itxieran aztertzen dira eta, egoki irizten bada, era prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixterakoan, narriadura indizioen existentzia ebaluatzen da eta, kasua ematen bada, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatesten dira, egin beharreko balio-zuzenketak eginez.

Aktibo ukiezina, emakida akordioa

Zumaiaiko kirol portua eraikitze eta ustiatze emakidaren kostuak linealki amortizatzen dira emakida-aldian, 30 urteko aldi, hain zuzen ere.

4.2 Ibilgetu materiala

Hasiera batean, bere kostuagatik baloratzen da ibilgetu materiala; kostua erosteko prezioa edo ekoizteko kostua izan daiteke.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu materiala baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, narriaduragatiko erregistratutako zuzenketa metatutako zenbatekoa.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze-kostuak horiek

4.1 Inmovilizado intangible

El inmovilizado intangible se valora inicialmente por su coste, ya sea éste el precio de adquisición o el coste de producción.

